

# Gure buruari

Koplak nori eta... geure buruari jarriko dizkiogu.  
Lepo gainean eta bihotz barruan daramagun horri.  
Loreak botaz edo adarra joz,  
bizitza osoan lagun dugun adiskide zahar horri.

## **Zertan trebatuko gara...**

Bi oinak hartuta, kopla sortzeko urratsa egingo dugu.

## **... eta zer ikasiko dugu?**

Bi puntu josiz osatzen dela kopla.

## **Plazara!**

“Gezur bila” eta “nor da nor?” asmakizun jolasak  
dibertigarriak izan daitezke gero beste ikasgeletara joan eta  
haien aurrean egiteko... Ea zenbateraino ezagutzen gaituzten!







# Nola amets batetik

Amets Arzallus Antia

Ametsek ere koplak jarri dizkio bere buruari.  
Goza dezagun puntutik puntura osatu duen sokaz!

***Doinua: Ama begira zazu***  
**Kopla txikia**

- 1 **Nola amets batetik** beste bat **kantari**  
koplak jartzen hasi naiz neure **buruari**.
- 2 Koplak jartzen hasi naiz neure **buruari**  
askotan ezagutzen zailena den **hari**.
- 3 **Nola amets batetik** besterako **sokan**  
hautzaroak alde egin zidan bi **pausotan**.
- 4 Hautzaroak alde egin zidan bi **pausotan**  
Messiren kamiseta jantzirik **azokan**.
- 5 **Nola amets batetik** txori bat **kantari**  
bertsotan hasi nintzen entzunez **aitari**.
- 6 Bertsotan hasi nintzen entzunez **aitari**  
ta isiltzen zenean, neronen **baitari**.
- 7 **Nola amets batetik** keinuka **sorginak**  
nire egun guztiak ez dira **berdinak**.
- 8 Nire egun guztiak ez dira **berdinak**  
isilik daramatzat lotsak eta **minak**.

Puntuak lerro bakarrean idatzi ditu Ametsek. Bi lerrotan jarri beharko bagenitu,  
non ebakiko genuke esaldia? Marka dezagun, puntu bakoitzean, *etena*.

# Erremerrea ni

Maialen Lujanbio Zugasti



Geure buruaz ari garela... denok gara ezberdinak eta bakarrak.  
Bakoitzak gure gorputza daukagu, gure hizketa modua, gure ibilera...  
Izateko gure modu berezia eta bakarra.  
Hortaz... zergatik egin barre besteen berezitasunei?

***Doinua: Zizperrlko kalean***  
**Kopla txikia**

**Furra furra  
farra farra  
zuena arrunta eta  
gurea bakarra.**

**1** Begi-argi, gerri-mehe,  
txiki, ertain, **handi**,  
zango-luze, sudur-motz...  
erremerrea **ni**.

Errepikatu orde  
**erre** bat '**zuzena**'  
nire eran esaten  
asmatu **nuena**.

**3** Trumoiaren burrunba  
badut **eztarrian**  
tximistak jotzen al du  
zure **belarrian?!**

Akaso izango duzu  
belarria **txarra...**  
**erre** ondo entzuten  
ikasi **beharra...**

**2** **Erre** 'normalak' dira  
berdinak **guziak**  
erremerreak berriz  
denak **bereziak**.

Batzuek eg\*}e eta  
beste batzuk **adl#@a...**  
...ez zaitezte saiatu  
zuentzat **zaila da**.

**4** **Erre**-aren soinuak  
halako bi **hizkik**  
zintzurrean kilimak  
eragiten **dizkit**.

Ezetz **erre**-a nire  
modura **ebaki**  
gauzak 'ondo' esaten  
edozeinek **daki!**

# Nire buruari

Koplak jarriko ditugu, nork gure berri emanaz.

Laguntza gisa, hara hemen ereduazko koplak.

Bizkarrezur hori gure mamiz beteko dugu gero: gure ezaugarriak aipatuz moldatuko ditugu koplak.

***Doinua: Ama begira zazu***

## Kopla txikia

- 1 Lotsatia naizela  
esaten **didate**  
ezagutzen nautenek  
arrazoi **daukate**.

esaten **didate**  
ezagutzen nautenek  
arraoi **daukate.**

- 2 Oso gustura nago eskola **honetan** oporrak noiz helduko beti **ametsetan**.

eskola honetan  
.....  
beti ametsetan.

- 3 Lasagna eta pizza  
gozo daude **baina**  
asteen hiru aldiz  
jaten dut **arraina**.

gozo daude baina

arraina.

- 4 Mendira joan eta  
igerian **jardun**  
umetatik ditudan  
zenbait **zaletasun**.

jardun

zenbait zaletasun.

- 5 Hamaika urte ditut,  
Maialen **izena**  
eta Rachid da nire  
lagunik **onena**.

izena

onena.

# Gezur bila!

Gure berri emanez, lau bitxikeria kontatuko ditugu.  
Puntua jarriko zaigu, galdera eginez,  
eta guk erantzun egingo dugu beste puntu batekin.  
Oina ere emango zaigu: nahi badugu horixe erabili dezakegu  
gure puntua osatzeko, edo hobeto datorkigun beste bat hartu.  
Baina adi: **galdera batean gezurra** erantzungo dugu.  
Ea lagunek asmatzen duten 4 erantzunetatik zein den gezurra!

- 1 Zein musika mota da  
entzuten **duzuna?**

.....  
.....  
..... **erantzuna.**

- 2 Txakur, katu, dortoka,  
txori, arrain, **sagu**

.....  
.....  
..... **daukagu.**

- 3 Joan al zara inoiz  
Anboto **puntara?**

.....  
.....  
..... **gara.**

- 4 Zein kirol mota duzu  
zuk **gustukoena?**

.....  
.....  
..... **onena.**

# Bi puntu lotuz, kopla!

Puntu bat sortu dugu orain arte. Goazen beste pauso bat ematera: bi puntu sortuko ditugu oraingoan, eta **kopla** bat osatuko dugu.


## Bi oin ditu koplak

**Bi puntu** osatu behar ditugu, **bi esaldi errimatu** eta, beraz, errimatzen duten bi hitz edo **bi oin** beharko ditugu.




## Oinak, nahi dugun ordenan

Esan nahi dugun **mezua** ahalik eta argiena azaltzeko, erabaki egin beharko dugu zein oin erabili lehenengo eta zein bigarren. Gure mezua **bi esalditan antolatu** behar dugu, **bi pausotan** kontatu.



## Bi oin, bi pauso

Gizakiok oinen gainean ibiltzen gara eta bertsoa ere oinen gainean doa. **Oin bakoitzarekin pauso bat** egiten dugu aurrera, **oin bakoitzak esaldi bat** sortzeko aukera ematen digu. Oinez oin, esaldiz esaldi,osatzen dugu bertsoa.





**Karta jokoa** hartuta,  
“Nor da nor?” jolasean ariko gara.  
Gure lagun ezkutua deskribatuko dugu,  
zertan den ona nabarmenduz.  
Zein dira haren gaitasunak eta dohainak?  
Horretarako, **bi oinak** emango zaizkigu eta,  
nahi dugun ordenan erabiliz,  
bi puntu sortuko ditugu.  
Ea **kopla** abestean lagunek **igartzen**  
duten nor den!



# Jolasa

## Errimen erruleta

Erruletan, asmatu beharreko hitzen bukaerak edo errimak ageri dira.  
Definizioa edo pista irakurrita, ea igartzen dugun zein hitz den!

|                |                                                      |
|----------------|------------------------------------------------------|
| <b>...ATZA</b> | sorginen objektu hegalaria                           |
| <b>...ETSA</b> | lotan imajinatzen dugun pasartea                     |
| <b>...ITZA</b> | hiltzerakoan badoana                                 |
| <b>...OTZA</b> | urak zero azpiko tenperaturan duen forma             |
| <b>...UTXA</b> | gauzak gordetzeko erabiltzen duguna                  |
| <b>...ATZE</b> | barazkiak hazteko lur eremu                          |
| <b>...ETXE</b> | herrietako erabakigune, eraikin garrantzitsu         |
| <b>...ITZE</b> | txikitzeren aurkako                                  |
| <b>...OSE</b>  | jateko premia                                        |
| <b>...UZE</b>  | labur ez dena                                        |
| <b>...ASI</b>  | azterketa gainditzeko egin behar dena                |
| <b>...EZI</b>  | ohiko ez dena                                        |
| <b>...ITZI</b> | norberaren ikuspuntu                                 |
| <b>...OSI</b>  | haria oihaletik zeharkatuz egiten duguna             |
| <b>...USI</b>  | iluntasunean egin ezin duguna                        |
| <b>...ATXO</b> | pertsona mitologiko bihurria. Euskal basoetan ugaria |
| <b>...ESO</b>  | kartzela barruan                                     |
| <b>...IXO</b>  | ondoezik egon                                        |
| <b>...OTXO</b> | gezurra esanda sudurra luzatzen zitzaion pertsonaia  |
| <b>...UZO</b>  | herriko etxe multzo                                  |
| <b>...ATSU</b> | zarata handiko                                       |
| <b>...EZU</b>  | mugikorretik bidalitako informazio                   |
| <b>...ISU</b>  | gorputz baten karga                                  |
| <b>...OZU</b>  | berak “dio”, zuk ...                                 |
| <b>...USU</b>  | izeko-osaben seme                                    |

